

29/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 19koa, Kultura eta Kirol Kontseilariarena, Kultura eta Kirol Departamentuko 2020-2022 Hizkuntza Plana onartzen duena.

103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde autonomoetan eta menpeko zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duenak, helburutzat du Nafarroako berezko bi hizkuntzen, euskara eta gaztelania, izatearen errealitateari erantzuna ematea, 18/1986 Euskararen Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, aitortzen duen bezala.

Foru Dekretu horren 6. artikulua, hizkuntza plangintzari buruzkoak, xedatzen du Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioari departamentuek beren planak egingo dituztela 3. artikuluan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta plan horien gutxienezko edukia zehazten du.

5. artikuluan, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua izendatzen da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioari departamentuen arteko koordinazio organo izateko, aholkuak eman beharko dizkiena eta haiekin lankidetzan aritu beharko dena Nafarroako Gobernuak hizkuntza politika eta plangintzaren arloetan dituen ildo estrategikoak ezartzeko. Alde horretatik, Euskarabideak eta Kultura eta Kirolak departamentuko Hizkuntza Plana idatzi dute.

Planak barne ditu departamentuaren egiturari buruzko erreferentzia bat, lege esparruaren deskribapena eta datu demografiko eta soziolinguistikoak. Abiapuntuko egoeraren hasierako diagnostikoa egiten du (zenbat plazatan dagoen ezarrita euskararen ezagutza), langileen euskararen

ezagutzari buruzko datuak ematen ditu, eta departamentuko komunikazio eta baliabideen egoera aztertzen du.

Era berean, ezarritako aldian garatu beharko diren helburuak zehazten dira, hala nola langileen euskarazko prestakuntza, herritarrei arreta euskaraz emateko neurriak, idatzizko informazio elebiduna, hizkuntza paisaia (errotulazioa eta elementu fisikoak), lanpostu jakin batzuen hizkuntza eskakizuna ezartzea eta lizitatutako zerbitzuen arreta elebidunerako irizpideak. Plana garatzeko antolaketa egituran departamentuko lantalde bat, departamentuen arteko batzorde bat eta Euskarabideako Gobernu Kontseilua finkatzen dira, koordinazio eta garapenerako entitate gisa, eta, azkenik, ebaluazio eta jarraipen mekanismoak ezartzen dira.

Proposamenarekin bat etorritz, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak eta Kultura eta Kirol Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 273/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

#### AGINTZEN DUT

1.º 2020-2022 urteetarako, biak barne, Kultura eta Kirol Departamentuko Hizkuntza Plana onartzea, 103/2017 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako administrazio publikoetan, bere erakunde autonomoetan eta menpeko zuzenbide pulikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duenak ezartzen duen moduan eta plana Foru Agindu honen eranskin bezala gehitzea.

2.º Plan hau Gobernu Irekiko atarian argitaratzea, ezagutzera emateko.

3.º Foru Agindu hau eta bere eranskina Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusira, Nafarroako Kirolaren Institutura, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutura eta Kultura eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Nagusira helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

Iruña, 2020ko ekainaren 19an.

KULTURA ETA KIROL KONTSEILARIA

Rebeca Esnaola Bermejo